

Txillardegi

## Bateratasuna

**A**zkeneko hauteskundeetan abertzaleok munduaren aurrean eskaini dugun "ekitaldia" lotsagarria izan da. Eta Mayor Oreja eta Rosa Diezen eskutik Europarako lortu dugun hautetsi taldea, bere buruz mintzo da garbiki.

Dimisioak eta autokritikak, noizko? Abertzale jendea zain dago, nik uste.

Honengatik edo hargatik, Hegoaldeko alderdi abertzale guztiak bilatu dute –baita lortu ere– espainiar aliaturen bat. Iparraldean, berdintsu.

Oñaztarrak eta ganboarrak, agramontesak eta beaumontesak, karlistak eta liberalak, betiko erdibiketa eskaini zaigu gori-gori.

Handik aste batzutara, bide berberetik, "alarde" en istorio txatxu azkengabea jasan behar izan dugu, eskopetak eta guzti. Eta San Martzialetan frantses gabatxo nazkagarri horieki guk, españolok, eman genien jipoia ospatu dugu harro-harro. Milagarren aldiz. Baina, hori bai, ongi zatiturik: *alarde mixto, alarde tradicional*. Elkarrri "alu hori!" deituz.

"Bapo mutillak! Ongi gatziazatik!" ...

Krutwig- ez oroitu naiz: "Herri honek ez du euskara miresgarria merezi" esan ohi zuen hark. Egokiro pentsatua, ene ustez.

Eta Jesus Lezaunen etsipena sentitzen dugu abertzale askok (ikus "*La unión es necesaria*" Gara, uzt.4): "*Ni un solo partido de aquí –dío– se ha unido con otro también de aquí*". Egia baita.

Eta irizkide nauka ondoren azaldu duen beste ideia honekin: "*La unidad no es posible ni positiva pero la unión entre distintos para obtener unos objetivos es absolutamente necesaria*".

Eta hau irakurtzea guztiz pozgarri eta beharrezkoa da.

Orain arte beste hau egon baita modu iraunkorrean: "*Izquierda no hay más que una*".


Hots, hori entzundakoan, "zein" galdetzea arunt gaizki hartua izan da gure artean.

Baina ezker sozialista, hemen eta non-nahi, bi multzo nagusitan banaturik dago. Batean, alderdi marxista-leninistak daude; eta bestean, alderdi ez marxista-leninistak.

Beste puntu minbera bat ukitzen ausartu da apaiz nafarra: PNVren aginte-aldiari amaiera emateko tenorea iritsia dela, alegia.

Eta honetan ere, argi eta garbi aitortuko dut: erabat naizela ados Lezaunekin.

Euskal egoera politikoa errotik aldatu gabe, PNVaren papera barne, hemen ez



RUBEN PLAZA

dagoela zulotik irtererik.

Euskal Herria ez da Txetxenia, ez Irak, ez Palestina, eta ez Nikaragua. Hemen ezker zibila azkartu behar da. Hau batetik.

Baina horretarako, ETAk su-etena aldarrikatu behar du.

Segidan Auto-determinazioaren aldeko herri-mugimendua antolatu behar da. Ez batasunean eraikita, bateratasunean baizik.

Badirudi EAK amaiera eman nahi diola PNVrekiko morrontza-aldiari; eta, nolazpait, ezkerretara jotzekotan dagoela. Hori baieztatzen baldin bada, eta PNVrekiko ezkontzari eustearen aldekoak benetan alderdiaren barruan gailentzen badira, EAekin kontatu behar litzateke.

Ezker Abertzale ofizialaren oinarri soziologikoa Auto-determinazioaren alde dago osotara. Arazo bakarra ETAtik datorkio. Baina menia lortuta, korapilorik ez.

Sindikatu abertzaleak, eta ELA eta LAB bereziki, funtsezko oinarriak dira gaur egun –Lizarra-Garaziren garaian izan ziren bezalaxe– Auto-determinazioaren aldeko frontea eraikitzeko. Gauza bera euskal kulturaren alorreko erakundeak.

Neure "etxekoez", nolabait adierazteko, zer esango? Nafarroa Bai elkarketa arrakastatsua izan dela –eta, agian, izango–. Euskal Herrian euskal ERC bat beharrezkoa da guztiz. Berriro ere, hau ez da Hirugarren Mundua. Ez daukate zertan txepelkeriatan eta ahalketan ibili beharrik. Ene ustez, jakina.

Eta PNVz, zer? Badela garaia PNV oposiziora pasatzeko –Katalunian CiU pasa den bezala–. Benetan diot hau.

Behin eta berriz zapuztu gaitu abertzaleok, anti-euskaldunik nabarmenekin bat ginez. Independentziaren inguruko arazoarengatik bota zituen EAKoak Eusko Jaurlaritzatik.

Orain bertan ere, beste elkarraldi bat ari da prestatzen PSOErekin, lotsarik batere gabe. Nahiz honek Partiduen Legeaz, eta PPrekin bultzatu dituen akordioetan, ez hautsi. Eta abar, eta abar.

Zer da, funtsean, eta orbelaz bestaldean, Ibarretxek proposatzen duen "Vascongadentzako" Estatutua, Auto-determinazioari uko maltzur bat besterik?

Auto-determinazioari bai.

Eta orduan: abertzaleok elkarturik, ezkerretik aurrera! ■

Badirudi EAK

amaiera eman

nahi diola

PNVrekiko

morrontza-aldiari;

eta, nolazpait,

ezkerretara

jotzekotan

dagoela. Hori

baieztatzen baldin

bada, eta

PNVrekiko

ezkontzari

eustearen

aldekoak benetan

alderdiaren

barruan

gailentzen badira,

EAekin kontatu

behar litzateke